

Paula Arzadun-ek bere doktore tesia defendatu du.

2012/07/16

Goizeko 12:00ean dena prest zegoen Enpresagintzan Paula Arzadun has zedin bere tesiaren defentsan. Gaia: "Estudio empírico sobre globalización del proceso productivo establecido de Mondragon y su impacto socioeconómico. Confluencia entre globalización, RSE, empresa y desarrollo".

Paula Arzadun-en tesi zuzendaria Arantza Echaniz (Deusto) izan da. Epaimahaia honela osatua izan zen:

Lehendakaria: Aitziber Mugarra (Deusto)

Idazkaria: Saioa Arando (MU)

1 kidea: Aitor Urzelai (MU-MIK)

2 kidea: M^o Antonia Ribas Bonet (Universitat de les Illes Balears):

3 kidea: Mikel Cid (EUCCB)

Mondragon 1956. urtean sortu zen eta dagoeneko 50 urtetako bizitza gainditu du. 2010. urte bukaeran 83.859 langile zituen 240 enpresa baino gehiagotan, enpresa horietatik erdiak, gutxi gora behera, bost kontinenteetan sakabanatutako kooperatibak zirelarik. Euskal Autonomia Erkidegoko lehendabiziko enpresa taldea da, Espainiako estatuko hamargarrena eta ekonomia sozialean lehena. Merkatuen garapen, konplexutasun eta globalizazio ekonomikoaren garaian, MONDRAGON taldeak hedatze bidean oinarritutako egoerara moldatu nahi izan du, erronka berriei erantzunez. Honen ondorio dira taldearen globalizazio ekonomikoa orokorrean eta, zehazki, finkatutako ekoizpen prozesuaren globalizazio (FEPG) esperientzien hedapena. 2011. urtearen amaieran, nazioarteko salmentak salmenta guztien %67a ziren, atzerrian ezarritako lantegiak 77 ziren eta atzerrian kokatutako lanpostuak, berriz, lanpostu guztien %19a ziren, ondorioz, zuzenean 15.900 langiletik gorako enplegua sortuz. Tesi honen helburua, Mondragon taldeko lau FEPG kasuren azterketa egitea da.

Globalizazio ekonomikoa eszenario konplexuetara hedatu ohi da. Hortaz, interes-talde anitzen arteko hartu-emanak sortu ohi dira eta enpresa, globalizazio prozesu, garapen ekonomiko eta enpresen gizarte erantzukizunaren (EGE) artean loturak sortzen dira. Gauzak horrela, EGE-ak bere irismen eta garrantziari dagokionean garapena izan du, kooperatibigintzaren barruan ezaugarri bereziak ager daitezkelarik. Kooperatiben sektoreari dagozkionez, MONDRAGON taldeak orokorrean rol esanguratsu bat dauka eta are esanguratsuagoa globalizazio ekonomikoari dagokionean. Horra, kasu hau aztertzearen garrantzia. Bestalde, hutsune zientifiko handiak identifikatu izan dira enpresa kooperatiboek beraien ingurunean duten eragin sozioekonomikoen gainean. MONDRAGON taldeak sortzen duen interesa kontutan hartuz eta literatura zientifikoan dagoen hutsuneari erreparatuz, tesi honek honako ikerketa galdera aurkezten du: nola eragiten du MONDRAGON taldeko finkatutako ekoizpen prozesuaren globalizazioak merkatu helburu diren arrisku herrialdeetan? Eragin hori ikuspegi ekonomiko zein sozioekonomikotik ulertuz eta enpresen gizarte erantzukizunaren estrategiatik abiatuta.

Honen harira, tesi honek eragin sozioekonomikoa neurtzen duen erreminta analitiko bat garatu du eta MONDRAGON taldeko lau FEPG kasutan aplikatu da. Horretarako bi neurri mota bateratu dira. Alde batetik, Input-Output taulak (Leontief, 1970) erabiliz, enpresa hauen eragin sozioekonomikoa neurtu da eta, beste aldetik, zenbait politika eta praktika ekonomiko, sozial nahiz ingurunearekin erlazionatutakoak enpresa estrategiarekin nola uztartzen diren aztertu da (Porter y Kramer, 2006). Horrela, MONDRAGONen ikertu diren FEPG lau kasuak hauek izan dira: Fagor Ederlan Brasileira, Orkli Kunshas, Erreka Mex,



eta RCS Kide; Brasil, Txina, Mexiko eta Indian kokatuta daudenak, hurrenez hurren. Ikerketarako oinarriak finkatze aldera, tesiak honako gai hauek jorratzen ditu: (1) enpresaren iharduna kokatzen dituen elementuak, (2) eragin ekonomikoaren modeloaren oinarriak, (3) lanpostuen sorrera eta diru-sarrera duinei buruzko oinarrizko ezagutzak eta (4) Enpresaren Gizarte Erantzukizuna orokorrean, nahiz kooperatiben sektorean eta honek enpresaren estrategiarekin duen koherentzia.

Tesiak, aztertutako enpresek sortutako efektu ekonomikoen garrantzia ondorioztatu du, sektorearteko erlazioetan garatutako aktibitatearen garrantzia azpimarratuz. Halaber, patroi faktorial arazlearen perfila definitu du gizartearekiko arduratsuak diren estrategien faktore potentzial erabakigarriak aintzat hartuz eta barne zein kanpo dimentsioei erreparatuz.. Ikerketaren emaitzek, barne dimentsioari dagozkionean, egileak proposatutako proposizio teorikoak konfirmatu ditu, hau da, enpresen EGEko politika eta praktikak, enpresako estrategiarekin bat datoz gehienetan. Alderantziz, kanpo dimentsioarekin erlazionatutako emaitzek, ez dituzte proposizio teorikoak betetzen, ikuspuntu honetatik aztertutako EGEko politika eta praktikak, enpresako estrategiarekin ez baitaude hain lerrokaturik.

Aurreikusitako helburuak betetzen badira ere, egia da ikerketak muga batzuk ere badituela, batez ere laginaren tamainari eta analisi estatistikoan dauden hutsuneei dagozkienak. Gabezi hauek, ikerketan zehar sortutako beste kontu batzuekin batera, etorkizunerako ikerketa lerro interesagarriak iradokitzen dituzte.